

Aipatu dugun bezala, gure enpresak funeraria eta erretegi zerbitzuak eskainiko ditu bi edifizio desberdinetan. Honek suposatzen duen arazo bat, kostuekin dator, azken batean bi edifizioen alokairua garestia da hasi den enpresa batentzat. Horretarako, gure enpresak hasieran bakarrik funeraria zerbitzua eskainiko du edifizio batean ahalik eta gastu gutxien egiteko. Kapital pixka bat aurrezterakoan erretegi zerbitzua irekiko genuke eta errazago kontrolatuko ditugu gastuak dena batera atera baino.

Izango ditugun gastu gehienak aldakorrak izango dira, eta bezeroen kopuruen eta beharren arabera izango dira. Bezero asko edukitzen baditugu gastaok gora joango dira eta alderantziz. Izan ahal ditugun gastaok hauek dira: makilagea, gasolina, janaria, argindarra ( erretegia), gasa ( erretegia), loreak eta hilkutxak.

Kostu finkoei erreparatuz aipatzekoak dira bi edifizioen alokairua, web-gunearen hostinga eta langileen soldatak. Langileen soldaten barruan beraiek edukitako seguruak sartu behar dira.

<b>KOSTU FINKOAK</b>	<b>KOSTU ALDAKORRAK</b>
Alokairua	Makilagea
Web-gunearen hostinga	Gasolina
Langileen soldatak	Janaria
	Argindarra
	Gasa
	Loreak
	Hilkutxak